1.- SARRERA.

Gipuzkoako Lurralde Historikoaren Finantza eta Aurrekontu Araubideari buruzko martxoaren 27ko 4/2007 Foru Arauak 48. artikuluan ezartzen duenez, zergei eragiten dieten gastu fiskalak aurrekontuetan jaso behar dira. Bestalde, irailaren 27ko 1/1994 Legegintza Dekretuak, Euskadiko Aurrekontu Erregimenari buruz indarrean dauden lege xedapenen testu bategina onartzen duenak, 5. artikuluan xedatutakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko aurrekontuen barruan Euskal Herriko aurrekontu gastuei laguntzeko foru aldundiek egiten dituzten ekarpenen onura fiskalei buruz Herri Finantzen Euskal Kontseiluak ematen duen informazioa jasoko da.

Gastu Fiskalen Aurrekontua (GFA) definitu beharko balitz, funtsean honako hau dela esan liteke: espresio zifratu bat, ekitaldi batean sarrera fiskalek izan dezaketen murrizpena adierazten duena zerga onurak eman direlako helburu ekonomiko eta sozial jakin batzuk lortzeko.

Jakina denez, gastu fiskalek nabarmen urritzen dituzte baliabide publikoak. Hortaz, gastu horiek aurrekontuan duten eragina ongi ezagutzeak aukera ematen digu zehazteko zenbat diru zuzentzen den aurrekontuan zergaz kanpoko helburuak lortzeko (familiak babestea edo inbertsio enpresariala sustatzea). Baina horretaz gain, aurrekontua gardena izaten ere laguntzen du, iritzi publikoari ezagutarazten zaiolako nora zuzentzen diren interes orokorra betetzeko egiten diren ahaleginak eta zein sakrifizio dakarren diru-bilketan zerga onurak emateak, horiek hobeto kontrolatzeaz batera.

Gastu fiskalen aurrekontuak gaurko Herri Ogasunean garrantzi handia badu ere, adostasun falta nabaria antzematen da gastuak eta zerga onurak kalkulatzeko metodologian, garrantzian eta esanahian; gastu fiskal desberdinen arteko erlazioak dituen ondorioak ebaluatzea zaila gertatzen da, ezinezkoa da gastu horien gorabeherek subjektu pasiboen portaeran dituzten eraginak zehaztea, datuak ez dira behar adinakoak, arazo estatistikoak eta iturrien kalitatea ere hor

1.- INTRODUCCION.

La Norma Foral 4/2007, de 27 de marzo, de Régimen Financiero y Presupuestario del Territorio Histórico de Gipuzkoa establece en su artículo 48 que se deberá consignar el importe de los gastos fiscales que afecten a los tributos. Además, el artículo 5 del Decreto Legislativo 1/1994, de 27 de septiembre, por el que se aprueba el Texto Refundido de las disposiciones legales sobre el Régimen Presupuestario de Euskadi, dispone que los presupuestos de la Comunidad Autónoma deberán consignar la información que facilite el Consejo Vasco de Finanzas Publicas sobre los beneficios fiscales correspondientes a las Aportaciones que efectúen las Diputaciones Forales como contribución a los gastos presupuestarios del País Vasco.

En esencia, el Presupuesto de Gastos Fiscales (PGF), puede definirse como la expresión cifrada de la disminución de ingresos tributarios que, previsiblemente, se producirá en un ejercicio como consecuencia de la concesión de beneficios fiscales orientados al logro de determinados objetivos de política económica y social.

Un buen conocimiento de la incidencia presupuestaria de los gastos fiscales, los cuales suponen una importante merma de los recursos públicos, permite no sólo determinar la aportación del Presupuesto a fines extrafiscales tan diversos como la protección a la familia o el fomento de la inversión empresarial, sino que ayuda a la transparencia presupuestaria, al dar conocimiento a la opinión pública sobre dónde se dirigen los esfuerzos en aras de cumplir el interés general y cuál es el sacrificio recaudatorio que comportan los beneficios fiscales, impulsando a su vez un mayor control de los mismos.

A pesar de la importancia que el PGF tiene en la Hacienda Pública moderna, existe una falta clara de consenso respecto al significado, alcance y metodología de estimación de los gastos o beneficios fiscales; hay dificultad en evaluar los efectos derivados de la interrelación de los distintos gastos fiscales, imposibilidad de determinar los efectos que provocan las alteraciones de los gastos fiscales en el comportamiento de las sujetos pasivos, problemas

daude, etab...

Oztopo horien guztien aurrean, eta gastu fiskalak, beste figura tributarioak barne, hobeto ezagutuz joan ahal izateko, ezinbesteko iritzi zaio Euskal Autonomia Erkidegoko hiru lurralde historikoetan komuna izango den metodologia bat finkatzeari datuak bateratzearren.

Euskadiko Zergen Koordinaziorako Organoan (EZKO) xede horrekin eratu den lan taldean hainbat azterketa eta analisi egin dira ez bakarrik koordinazio, harmonizazio eta berriztapen hori hobetzeko, baita gastu fiskalen aurrekontua hobeto kalkulatu eta kuantifikatzeko ere.

Laburbilduz, honela definitu liteke gastu fiskala: sarrerak gutxitzea salbuespenak, hobariak, murrizpenak eta desgrabazioak direla medio. Zergak, horren ondorioz, aldendu egiten dira beren egitura orokorretik, eta helburu ekonomiko-sozialak dituzten subjektu, ekintza edo jarduera jakin batzuen aldeko diskriminazioak ekartzen dituzte.

Beraz, eta definizioan adierazi denaren arabera, gastu fiskalak honako hauek izan daitezke:

- Zerga salbuespenak edo oinarri ezargarritik kanpo geratzen diren errentak. "Salbuespen teknikoak" eta "zergapetu gabeko kasuak" ez dira gastu fiskaltzat hartzen.

- Oinarri ezargarriaren murrizpenak edo oinarri ezargarria lortzeko errenta gordinetik murriztutako kopuruak.

- Kreditu fiskalak edo zergaren kuotatik kendutako kopuruak.

- Zerga tasa bereziak edo, talde nahiz jarduera jakin batzuen mesederako, tarifan sartzen diren tasa murriztuak.

de carencia de datos, problemas estadísticos, calidad de fuentes, etc.

Todas estas dificultades, junto a la necesidad de avanzar en el mejor conocimiento de los gastos fiscales, incluyendo, también, otras figuras tributarias, han hecho necesaria la obtención de una metodología común a los tres Territorios Históricos de la Comunidad Autónoma del País Vasco, que haga posible la consolidación de los datos.

En el grupo de trabajo constituido al efecto en el seno del Órgano de Coordinación Tributaria de Euskadi (OCTE), se han realizado diversos estudios y análisis no sólo para mejorar esa coordinación, armonización y renovación, sino también para mejorar en la estimación y cuantificación del PGF.

Resumiendo, podemos definir el gasto fiscal como la minoración de los ingresos debido a las exenciones, bonificaciones, reducciones y desgravaciones que apartan a los tributos de su estructura general y constituyen discriminaciones en favor de determinados sujetos, actuaciones o actividades dirigidas a la consecución de determinados objetivos económico - sociales.

Por tanto, y según se expresa en la definición, los gastos fiscales podrán adoptar las siguientes formas:

- Exenciones fiscales o rentas que quedan excluidas de la base imponible. No se consideran gasto fiscal las denominadas “exenciones técnicas” y los “supuestos de no sujeción”.

- Reducciones de la base imponible o cantidades deducidas de la renta bruta para conseguir la base imponible.

- Créditos fiscales o cantidades deducidas de la cuota impositiva.

- Tipos impositivos especiales o tipos reducidos introducidos en la tarifa que intentan beneficiar a determinados grupos o actividades.

2.- GASTU FISKALEN AURREKONTUA PRESTATZEA. KALKULURAKO METODOLOGIA.

Gastu fiskalak kontabilizatzerakoan "Sarreren galera" kuantifikatzeko metodoa erabili da. Honela definitu liteke sarreren galera: xedapen batek pizgarri jakin bat ezartzeagatik sarrera fiskalean gertatzen den murrizpenaren zenbatekoa.

"Kutxako irizpidea" edo sarrerak gutxitzen diren unea kontuan hartuz baloratzen da.

Oro har bi teknika mota erabili badira ere, badira zenbait kasu, BEZa eta zerga berezi jakin batzuk adibidez, metodologia zehatzagoa behar dutenak:

1) Simulazio teknikak: zergadun guztiak edo horien lagin adierazgarri bat hartuz, eta beharrezko aldaketak eginez, posible da onura fiskalen eragina zergadun bakoitzeko ezagutzea eta, emaitzak batu ondoren, zenbateko osoa lortzea.

2) Gastu fiskalen kontzeptu desberdinek aurreko ekitaldietan izan duten bilakaera ezagutu ondoren, gastu horiek dagokion urtera proiektatzen dira BPG nominala gehituz edo zergabilketan izan duen eboluzioa aztertuz. Aurreko ekitaldietan eta urte horretan aplikatu den zerga araudia behin ezagututa egiten da hori.

Tributu bakoitzari buruz dagoen informazio fiskalak eta aztertzen den gastu fiskalaren izaerak erabakitzen dute zein metodo erabili kasu bakoitzean.

Errenta Zergaren eta Sozietateen gaineko Zergaren gastu fiskalei dagokienez, oso informazio zehatza eskaintzen dugu. Bi arrazoi daude horretarako: batetik, zerga horien inguruan estatistika ugari eskura izatea eta, bestetik, zerga onuretako batzuk zergadunek berek beren urteko likidazioetan aitortzea.

Beste zerga batzuetan (Balio Erantsiaren gaineko Zergan, Aseguru Primen gaineko Zergan eta Zerga

2.- ELABORACION DEL PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES. METODOLOGIA DE CÁLCULO.

Para la contabilización de los gastos fiscales se adopta el método de cuantificación de la "pérdida de ingresos", definida como el importe en el cual el ingreso fiscal se reduce a causa de la existencia de una disposición particular que establece el incentivo del que se trate.

Su valoración se efectúa de acuerdo con el "criterio de caja" o momento en que se produce la merma de ingresos.

En general, se han utilizado dos tipos de técnicas, si bien hay casos excepcionales como el IVA y ciertos impuestos especiales, que precisan una metodología más concreta:

1) Técnicas de simulación: tomando bien la totalidad o bien una muestra representativa de contribuyentes, y realizando las modificaciones oportunas se logra determinar contribuyente a contribuyente el impacto de los beneficios fiscales, para después agregando obtener el importe total.

2) Partiendo de la evolución observada en ejercicios precedentes en los diferentes conceptos de gastos fiscales, proyectarlos posteriormente al año de referencia mediante el incremento del PIB nominal o analizando la evolución recaudatoria del impuesto, conocida la normativa tributaria aplicada en los ejercicios anteriores y en ese año.

La información fiscal disponible sobre cada tributo y el carácter del propio gasto fiscal objeto de análisis, es el que determina el método elegido en cada caso.

En el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas e Impuesto sobre Sociedades se ofrece información detallada de los gastos fiscales correspondientes, por una parte porque se posee una importante serie estadística del impuesto, y por otra, por el hecho de que algunos de los beneficios fiscales sean declarados por los propios contribuyentes en sus liquidaciones anuales.

En otros impuestos, (Impuesto sobre el Valor Añadido, Impuesto sobre Primas de Seguros e

Berezietan) zailagoa da gastu fiskalak zenbatekoak izan daitezkeen kalkulatzea. Horien izaera dela eta (salbuespenak eta tasa-aldaketak direlako batik bat), eskura dugun informazio fiskala ez da nahikoa gertatzen. Horrelakoetan, aitortutako datu fiskalak, urte desberdinetako araudiak eta salbuespenei buruzko datu ekonomikoak aztertzeaz gainera, beste administrazio batzuek (foru administrazioek eta Administrazio Zentralak) aurreko ekitaldietako aurrekontuetan jasotako gastuak ere hartu ditugu erreferentzia gisa.

3.- ARAUDIAREN ALDAKETAK 2010ean

2010. urtean aurkeztu beharreko zergatan ez dira aldaketa nabarmenik sartu. Aipatzeko moduko bakarra, Balio Erantsiaren Zergan izango dugu: 2010eko uztailaren 1etik aurrera tasa orokorra %16tik %18ra pasako da eta tasa murriztua %7tik %8ra.

4.- 2010eko GASTU FISKALEN AURREKONTUA.

2010. urterako aurrekontuetan 1.913.124 mila euroko gastu fiskalak jaso dira guztira. Sarrera tributario teorikoak hartzen baditugu, hau da, Herri Finantzen Euskal Kontseiluari atxikitako zergen bidez espero diren sarrerak gehi aurreikusitako gastu fiskalen zenbatekoa, gastu fiskalak sarrera teoriko horien %34,5 dira.

Ondoko bi tauletan 2010. urterako gastu fiskalen aurreikuspena eta zerga itunduengatik espero diren sarrerak konparatzen dira alde batetik, eta bestetik, 2009ko eta 2010eko gastu fiskalen aurreikuspenen arteko konparazioa egin da.

Impuestos Especiales) las dificultades para estimar los gastos fiscales son mayores. El carácter de los mismos (principalmente exenciones y variaciones en los tipos) hace que la información fiscal de que se dispone no sea suficiente. En estos casos, además de analizar los datos fiscales declarados, la normativa vigente en los diferentes años y datos económicos relacionados con las exenciones, se toman como referencia los gastos presupuestados por otras Administraciones (Forales y Central) en ejercicios precedentes.

3.- CAMBIOS NORMATIVOS EN 2010

No se han introducido modificaciones de relevancia en los impuestos a presentar en 2010. El único cambio a destacar ocurrirá en el IVA: a apartir del 1 de julio de 2010 el tipo de gravamen general pasará del 16% al 18% y el tipo reducido del 7% al 8%.

4.- PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES 2010.

Los gastos fiscales presupuestados para el año 2010 ascienden a 1.913.124 miles de euros, lo cual representa el 34,5% de los ingresos tributarios teóricos (suma de los ingresos por tributos afectos al Consejo Vasco de Finanzas Públicas y del importe estimado de los propios gastos fiscales).

En los dos cuadros siguientes se ofrece, por una parte, la comparación entre la previsión de gastos fiscales y la previsión de ingresos por Tributos Concertados para el año 2010 y, por otra parte, la comparación entre las previsiones de gastos fiscales para 2009 y para el año 2010.

ZERGA ITUNDUENGATIK ESPERO DIREN SARREREN AURREKONTUA ETA GASTU FISKALENA 2010 URTEAN
PRESUPUESTO DE INGRESOS POR TRIBUTOS CONCERTADOS Y DE GASTOS FISCALES PARA 2010

KONTZEPTUA CONCEPTO	SARREREN AURREKONTUA PPTO. INGRESOS A	GASTUEN AURREKONTUA PPTO. GASTOS B	% B / (A+B)
Errentaren gaineko zerga / IRPF	1.349.538	774.366	36,5
Sozietateen gaineko zerga / Impto. Sobre sociedades	285.640	149.347	34,3
Oinordetza eta dohaintzen zerga / Impto. Sucesiones y donaciones	29.760	0	0,0
Ondarearen gaineko zerga / Impto. Sobre el patrimonio	47.180	50.620	51,8
Bestelakoak / Otros	10.230	0	0,0
ZUZENEKO ZERGAK / IMPUESTOS DIRECTOS	**1.722.348**	**974.333**	**36,1**
Ondare eskualdaketa eta E.J.D. zerga / Impto. Transm. patrimoniales y A.J.D.	82.900	24.211	22,6
Balio erantsiaren gaineko zerga / Impto. Sobre el valor añadido	1.262.754	823.429	39,5
Zerga bereziak / Impuestos especiales	489.157	84.469	14,7
Aseguru primen gaineko zerga / Impto. sobre primas de seguros	24.240	6.331	20,7
Zenbait hidrok. txikizkako salm. zerga / Impto. ventas minoristas det. hidrocar.	17.101	351	2,0
ZEHARKAKO ZERGAK / IMPUESTOS INDIRECTOS	**1.876.152**	**938.791**	**33,4**
Tasak eta beste sarrera batzuk / Tasas y otros ingresos	30.125	0	0,0
GUZTIRA / TOTAL	**3.628.625**	**1.913.124**	**34,5**

(Mila eurokotan / En miles de euros)

2010EKO GASTU FISKALEN AURREKONTUA ETA AURREKO EKITALDIAREKIKO KONPARAZIOA
PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES PARA 2010Y COMPARACION CON EL EJERCICIO ANTERIOR

KONTZEPTUAK CONCEPTOS	AURREKONTUA 2009 PRESUPUESTO	AURREKONTUA 2010 PRESUPUESTO	ALDAKETA VARIACIÓN 2010/2009 (%)
Errentaren gaineko zerga / IRPF	816.670	774.366	-5,2
Sozietateen gaineko zerga / Impto. Sobre sociedades	193.644	149.347	-22,9
Ondarearen gaineko zerga / Impto. Sobre el patrimonio	0	50.620	0,0
ZUZENEKO ZERGAK / IMPUESTOS DIRECTOS	**1.010.313**	**974.333**	**-3,6**
Ondare eskualdaketa eta E.J.D. zer. / Impto. Trans. Patrimoniales y A.J.D.	33.574	24.211	-27,9
Balio erantsiaren gaineko zerga / Impto. sobre el valor añadido	1.088.031	823.429	-24,3
Zerga bereziak / Impuestos especiales	67.107	84.469	25,9
Aseguru primen gaineko zerga / Impto. sobre primas de seguros	6.928	6.331	-8,6
Zenbait hid. txikizkako salmenten zer. / Impto. vtas min. deter. hidrocarburos.	383	351	-8,2
ZEHARKAKO ZERGAK / IMPUESTOS INDIRECTOS	**1.196.024**	**938.791**	**-21,5**
GUZTIRA / TOTAL	**2.206.337**	**1.913.124**	**-13,3**

(Mila eurokotan / En miles de euros)

5.- PERTSONA FISIKOEN ERRENTAREN GAINEKO ZERGA

Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergagatik 2010erako aurreikusi diren gastu fiskalak 774.366 mila eurokoak dira guztira, hau da, zerga honengatik espero diren sarrera tributario teorikoen %36,5. 2009ko gastu fiskalen aurrekontuarekin alderatuta %5,2 txikiagoak dira.

Simulazio teknikak egiterakoan erabili ditugun oinarrizko datuak 2007ko PFEZari dagozkio, hau da, 2008an likidatutakoari. 2010. urtera proiektatuak izateko, eskura dauden datu historikoak eta jarduera ekonomikoaren eta lan merkatuaren bilakaerari buruzko aurreikuspenak hartu dira kontuan.

Jarraian, Pertsona Fisikoen Errentaren gaineko Zergari lotutako gastu fiskalen zerrenda azalduko dugu. Nolanahi ere, azpimarratu behar da 2010. urteari egozten zaizkion gastu fiskalak 2009ko likidazioari dagozkiola eta likidazio hori 2010. urtean egiten dela.

5.1. Salbuespenak

5.1.1. Ohiko etxebizitzan berrinbertitzea

Salbuespenak ohiko etxebizitza eskualdatzeagatik sortutako ondare irabaziak hartzen ditu, zenbatekoa beste ohiko etxebizitza baten erosketan berrinbertitzen denean.

Aldagai hau zergaren urteko aitorpenetan islatzen denez, simulazioaren metodoa erabiltzen da, eta ulertzen dugu zati salbuetsiari aurrezpenaren oinarri likidagarriaren zerga tasa aplikatzen zaiola (%18). Lortzen den emaitza dagokion ekitaldira proiektatzeko (2009ko aitorpena 2010ean aurkezten da), hainbat adierazle erabiltzen dira, esatera baterako, kontzeptu horrek aurreko urteetan izandako bilakaera. Horrekin konpondu egiten dugu eskura dauden datuen eta prestatzen ari den aurrekontuaren arteko desfase tenporala.

26.555 mila euroko gastu fiskala kalkulatu da 2010erako.

5.- IMPUESTO SOBRE LA RENTA DE LAS PERSONAS FISICAS.

Los gastos fiscales por el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas para el año 2010 ascienden a 774.366 miles de euros, lo cual representa un 36,5% de los ingresos tributarios teóricos por este impuesto y supone una disminución del 5,2% sobre el presupuesto de gastos fiscales de 2009.

Los datos base disponibles a la hora de realizar las técnicas de simulación corresponden al IRPF del ejercicio 2007, liquidado en 2008. Para su proyección al año 2010 se tienen en cuenta tanto los datos históricos disponibles como las previsiones sobre la evolución de la actividad económica y del mercado de trabajo.

A continuación se pasa a exponer la relación de gastos fiscales del Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas. Sin embargo, es preciso matizar que los gastos fiscales imputables al año 2010 se corresponden con la liquidación del ejercicio 2009, la cual se efectúa en el 2010.

5.1. Exenciones

5.1.1. Reinversión en vivienda habitual

La exención hace referencia a las ganancias patrimoniales derivadas de la transmisión de la vivienda habitual en el caso de reinversión en la adquisición de una nueva vivienda habitual.

Al tener esta variable reflejo en las declaraciones anuales del impuesto, el método utilizado es el de simulación, suponiendo que la parte exenta tributa al tipo de la base liquidable del ahorro (18%). El resultado así obtenido se proyecta al ejercicio correspondiente (declaración del 2009 a presentar en 2010) mediante el uso de indicadores tales como la evolución del mismo concepto en años anteriores. De esta manera logramos corregir el desfase temporal entre los datos disponibles y el presupuesto que se está elaborando.

El gasto fiscal estimado para 2010 asciende a 26.555 miles de euros.

5.1.2. Dibidenduengatik 1.500 euro

Dibidenduak eta mozkin-partaidetzak 1.500 euroko mugarekin daude salbuetsita.

Kalkulua simulazio bidez egiten da, eta hau da, suposatzen dugu zati salbuetsiari aurrezpenaren oinarri likidagarriaren zerga tasa aplikatzen zaiola (%18).

4.450 mila euroko gastu fiskala kalkulatu da 2010erako.

5.2. <u>Oinarri ezargarriaren murrizpenak</u>

Gastu fiskalaren zenbatekoa zergadunak banan-banan hartuta kalkulatzen da, eta murriztu den kuota osoaren eta murriztu gabekoaren arteko diferentziak ematen du gastu fiskala.

5.2.1. Lan etekinen murrizpena

Lan etekinak jasotzen dituzten zergadunek 3.000 eta 4.650 euro bitarteko murrizpena egin ahal izango dute, aipatutako etekinen zenbatekoa zein den. Gainera, etekina jasotzen duena aktiboan dagoen langile ezindua baldin bada, murrizpena %100 edo %250 gehituko da, bere minusbaliotasun mailaren arabera.

Apartatu honi dagokion gastu fiskala 256.459 mila eurokoa izatea espero da.

5.2.2. Murrizpena pentsio planetan eta borondatezko gizarte aurreikuspeneko entitateetan egindako ekarpenengatik.

Oro har, urtean gehienez egin daitekeen murrizpena 8.000 eurokoa da, baina zenbateko hori gehitu egiten da adinaren arabera (52 urtetik gorakoen kasuan) eta pertsona minusbaliatuentzat. Oinarri ezargarria txikia izateagatik murriztu gabe geratzen diren kopuruak hurrengo bost ekitaldietako aitorpenetara eraman ahal izango dira.

156.000 mila euroko gastu fiskala kalkulatu da 2010. urterako.

5.1.2. 1.500 euros por dividendos

Los dividendos y participaciones en beneficios están exentos con un límite de 1.500 euros.

El cálculo se realiza mediante simulación, suponiendo que la parte exenta tributa al tipo de la base liquidable del ahorro (18%).

El gasto fiscal estimado para 2010 asciende a 4.450 miles de euros.

5.2. <u>Reducciones de la base imponible</u>

La cuantía de gasto fiscal se determina contribuyente a contribuyente, como la diferencia entre la cuota íntegra con reducción y la cuota íntegra sin reducción.

5.2.1. Reducción por rendimientos de trabajo

Los contribuyentes que perciban rendimientos de trabajo, podrán aplicarse una reducción de entre 3.000 y 4.650 euros, dependiendo del importe del citado rendimiento. Además si el perceptor del rendimiento es un trabajador en activo discapacitado, la reducción se incrementará en un 100% o 250%, dependiendo de su grado de minusvalía.

El gasto fiscal correspondiente a este apartado se estima en 256.459 miles de euros.

5.2.2. Reducción por aportaciones a Planes de Pensiones (PP) y Entidades de Previsión Social Voluntaria (EPSV)

En general, la cantidad máxima de reducción es de 8.000 euros anuales, si bien se incrementa en función de la edad a partir de 52 años y para personas con minusvalía. Las cantidades que no hubieran podido ser objeto de reducción, al no tener la base imponible la suficiente magnitud, podrán trasladarse a las declaraciones de los cinco ejercicio siguientes.

Se estima un gasto fiscal para el año 2010 de 156.000 miles de euros.

5.2.3. Baterako tributazioa

Batera tributatzeagatik aplikatzen den murrizpenak kuotan duen eragin bezala kalkulatzen da gastu fiskala (ken errentak metatzearen ondorioz kalkuluan gertatzen den gehiegizko kopuruagatik egin beharreko doiketa).

2010. urterako kalkulatu den gastu fiskala 57.648 mila eurokoa da.

5.3. Kuotako kenkariak

2007. urtean aplikatutako kenkariaren zenbatekoa (2008an likidatutako aitorpenarena), 2009. urtera eramaten da azken urteetan izandako bilakaera ikusirik eta zenbait adierazle aurreratuen datuak kontuan izanda.

5.3.1. Jarduera ekonomikoa sustatzeko kenkaria

400 euroko kenkari orokorra aplikatu ahal izango da autolikidazio bakoitzeko.

133.000 mila eurokoa da kalkulatu den gastu fiskala.

5.3.2. Kenkaria ohiko etxebizitza errentan hartzeagatik

Oro har %20ko kenkaria egin ahal izango da ohiko etxebizitza errentan hartzeko zergaldian ordaindutako kopuruengatik (1.600 euroko mugarekin urtean). Besteak beste, zergadunek 35 urte baino gutxiago dituztenean edo familia ugarien titularrak direnean, portzentaje hori %25ekoa izango da (2.000 euroko mugarekin).

2010. urterako 14.774 mila euroko gastu fiskala kalkulatu da.

5.3.3. Kenkaria ohiko etxebizitza erosi eta birgaitzeagatik

Zergadunek %18ko kenkaria aplikatu ahal izango dute ohiko etxebizitza erosi edo birgaitzeko erabilitako zenbatekoengatik edo, ohiko etxebizitzan inbertitzeko erabili diren besteen kapitalak direla-eta ordaindutako interesengatik. 2.160 eurokoa izango da urteko muga. 35 urtetik

5.2.3. Tributación conjunta

El gasto fiscal se estima como el efecto en cuota de la aplicación de la reducción por tributación conjunta (menos un ajuste por el efecto del exceso en el cálculo como consecuencia de la acumulación de rentas).

Se estima para 2010 un gasto fiscal de 57.648 miles de euros.

5.3. Deducciones en la cuota

Teniendo en cuenta el importe de la deducción aplicada en 2007 (declaración liquidada en 2008), se proyecta dicha cuantía al año 2009, dada la evolución experimentada en los últimos años, y teniendo en cuenta los datos de algunos indicadores adelantados.

5.3.1. Deducción para incentivar la actividad económica

Se podrá aplicar una deducción general de 400 euros por cada autoliquidación.

El gasto fiscal estimado asciende a 133.000 miles de euros.

5.3.2 Deducción por alquiler de vivienda habitual

Con carácter general podrán deducirse el 20% (con un límite de 1.600 euros anuales) de las cantidades satisfechas en el ejercicio por el alquiler de la vivienda habitual. Entre otros, en el caso de personas menores de 35 años o titulares de familia numerosa el porcentaje se eleva al 25% (con un límite de 2.000 euros).

Se estima un gasto fiscal para el año 2010 de 14.774 miles de euros.

5.3.3. Deducción por adquisición y rehabilitación de vivienda habitual

Los contribuyentes pueden deducirse el 18% tanto de las cantidades destinadas a la adquisición o rehabilitación de la vivienda habitual, como de los intereses satisfechos por la utilización de capitales ajenos utilizados en la inversión de la vivienda habitual, con un límite anual de 2.160 euros. Los

beherako zergadunek edo familia ugarien titularrek %23 kendu ahal izango dute, 2.760 euroko mugarekin.

Kontzeptu honengatik 111.148 mila euroko gastu fiskala espero da 2010erako.

5.3.4. Kenkaria etxebizitza kontuei egindako ekarpenengatik

Kreditu entitateetan gordailutzen diren diru-kopuruak, hau da, "etxebizitza kontuak" izenez ezagunak direnak, subjektu pasiboaren ohiko etxebizitza erosi edo birgaitzeko bakarrik erabiltzen badira, %18ko kenkaria dute.

2010. urterako aurreikusi den gastu fiskala 6.018 mila eurokoa da.

5.3.5. Kenkaria enpresa eta lanbide jardueretan inbertitzeagatik

Enpresari eta profesionalek zuzeneko zenbatespena erabiltzen badute, Sozietateen gaineko Zergan aplikatzen diren zerga-pizgarriak Errenta Zergan ere aplikatzen zaizkie portzentaje eta kenkari muga berdinekin.

Kontzeptu honengatik 1.056 mila euroko gastu fiskala kalkulatu da 2010. urterako.

5.3.6. Kenkariak mezenasgo jarduerengatik

Fundazioen zerga erregimenari buruzko araudiak eta ekimen pribatuari interes orokorreko jardueretan parte hartzeagatik zerga-pizgarriak ematekoak zerga honetarako aurreikusten dituzten kenkariak aplikatu ahal izango dituzte zergadunek.

Kontzeptu honi lotzen zaion gastu fiskala 4.334 mila eurokoa da.

5.3.7. Kenkaria langileek enpresan parte hartzeagatik

Zergadunek %10eko kenkaria aplika dezakete, 1.800 euroko mugarekin urtean, lan egiten duten entitateko edo sozietate taldeko beste edozein enpresako akzio edo partaidetzak erosi edo

contribuyentes menores de 35 años o titulares de familia numerosa pueden deducirse el 23% con un límite de 2.760 euros.

El gasto fiscal estimado para el año 2010, por este concepto, es de 111.148 miles de euros.

5.3.4. Deducción por aportaciones a cuentas vivienda

Las cantidades que se depositen en Entidades de Crédito, siempre que los saldos de las mismas se destinen exclusivamente a la adquisición o rehabilitación de la vivienda habitual del sujeto pasivo, es decir, las conocidas como "Cuentas vivienda" desgravan el 18%.

El gasto fiscal previsto para el año 2010 asciende a 6.018 miles de euros.

5.3.5. Deducción por inversión en actividades empresariales y profesionales

Los incentivos fiscales de aplicación en el Impuesto sobre Sociedades son, asimismo, aplicables en el Impuesto sobre la Renta de las Personas Físicas a los empresarios y profesionales en régimen de estimación directa, en iguales porcentajes y límites de deducción.

Se estima por este concepto un gasto fiscal durante 2010 de 1.056 miles de euros.

5.3.6. Deducciones por actividades de mecenazgo

Los contribuyentes podrán aplicar las deducciones previstas para este Impuesto en la normativa reguladora del régimen fiscal de fundaciones y de incentivos fiscales a la participación privada en actividades de interés general.

El gasto fiscal asociado a este concepto de eleva a 4.334 miles de euros.

5.3.7. Deducción por participación de los trabajadores en la empresa

Los contribuyentes podrán aplicar una deducción del 10%, con un límite anual máximo de 1.800 euros, de las cantidades satisfechas en metálico en el periodo impositivo, destinadas a la adquisición

harpidetzeko zergaldian dirutan ordaindutako kopuruengatik.

Kontzeptu honengatik 137 mila euroko gastu fiskala aurreikusi da.

5.3.8. Kenkaria jarduera ekonomiko bat hasteko kreditu entitateetan egiten diren gordailuengatik.

Kreditu entitateen kontuetan sartutako kopuruengatik subjektu pasiboek %10eko kenkaria egin dezakete, 2.000 euroko mugarekin, baldin eta, 3 urteko epea igaro baino lehen, kopuru horiek jarduera ekonomiko bat hasteko beharrezkoak diren gastu eta inbertsioetarako bakarrik erabiltzen badituzte.

Kontzeptu honengatik mila euroko gastu fiskala aurreikusi da.

5.3.9. Kenkaria langileen sindikatuei ordaindutako kuotengatik

Zergadunek %30eko kenkaria egin ahal izango dute langileen sindikatuei ordaindutako kuotengatik.

2.785 mila euroko gastu fiskala kalkulatu da kontzeptu honengatik.

Jarraian, 2010. urterako gastu fiskalen aurrekontua laburbildu eta 2009. urtekoarekin konparatu dugu kontzeptu nagusien arabera.

o suscripción de acciones o participaciones en la entidad o en cualquiera del grupo de sociedades, en la que presten sus servicios como trabajadores.

Se estima por este concepto un gasto fiscal de 137 mil euros.

5.3.8. Deducción por depósitos en entidades de crédito para la inversión en el inicio de una actividad económica.

Los sujetos pasivos podrán deducirse el 10%, con un límite de 2.000 euros, sobre las cantidades depositadas en cuentas de entidades crediticias, siempre que se destinen exclusivamente (antes del transcurso de 3 años) a la realización de gastos e inversiones necesarios para el inicio de una actividad económica.

Se estima por este concepto un gasto fiscal de mil euros.

5.3.9. Deducción por cuotas satisfechas a los sindicatos de trabajadores

Los contribuyentes podrán aplicar una deducción del 30% de las cuotas satisfechas a sindicatos de trabajadores.

Se estima por este concepto un gasto fiscal de 2.785 miles de euros.

A continuación se ofrece un resumen del Presupuesto de Gastos Fiscales para el año 2010 y su comparación con el de 2009 por los principales conceptos.

ERRENTA ZERGA
2010. URTEKO GASTU FISKALEN AURREKONTUA ETA AURREKO EKITALDIAREKIKO KONPARAKETA
I.R.P.F.
PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES PARA 2010 Y COMPARACION CON EL EJERCICIO ANTERIOR

KONTZEPTUAK CONCEPTOS	AURREKONTUA 2009 PRESUPUESTO	AURREKONTUA 2010 PRESUPUESTO	ALDAKETA VARIACION 2010/2009 (%)
SALBUESPENAK / EXENCIONES			
Ohiko etxebizitzan berrinbertitzea / Reinversión en vivienda habitual	40.140	26.555	-33,8
Dibidenduak / Dividendos	6.694	4.450	-33,5
MURRIZPENAK OINARRIAN / REDUCCIONES EN LA BASE			
Pentsio planak eta bgae /Planes de pensiones y epsv	165.994	156.000	-6,0
Lan etekinen murrizpena / Reducción por rendimientos de trabajo	264.065	256.459	-2,9
Baterako tributazioa / Tributación conjunta	64.744	57.648	-11,0
KENKARIAK KUOTAN / DEDUCCIONES EN LA CUOTA			
Jarduera ekonomikoa sustatzea / Impulso actividad económica	112.617	133.000	18,1
Ohiko etxebizitza errentan hartzea / Alquiler vivienda habitual	15.247	14.774	-3,1
Ohiko etxebizitza erostea / Adquisición vivienda habitual	128.593	111.148	-13,6
Etxebizitza kontuak / Cuentas vivienda	9.544	6.018	-36,9
Jarduera enp. eta prof.etan inbertitzea / Inversión actividades emp. y prof.	1.302	1.056	-18,9
Langileek enpresan parte hartzea / Partipación trabajadores en la empresa	30	137	352,9
Mezenazgo jarduerak / Actividades de mecenazgo	4.773	4.334	-9,2
Enpresako aurrezki-kontua / Cuenta ahorro empresa	25	1	-96,0
Cuotas satisfechas a los sindicatos / Sindikatuei ordaindutako kuotak	2.902	2.785	-4,0
GUZTIRA / TOTAL	**816.670**	**774.366**	**-5,2**

(Mila eurokotan / En miles de euros)

6.- SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA

Sozietateen gaineko Zergan 149.347 mila euroko gastu fiskalak aurreikusi dira 2010. urterako, hau da, zerga honengatik aurrekontuan jasotako sarrera teorikoen %34,3. 2009ko gastu fiskalen aurrekontuarekin alderatuta, %22,9 txikiagoak dira.

6.1.- Zerga tasa bereziak

Tasa orokorraren arabera kalkulatutako kuota osoak "tasa bereziaren" arabera kalkulatutakoaren aldean duen diferentzia hartzen da gastu fiskaltzat.

6.- IMPUESTO SOBRE SOCIEDADES

Los gastos fiscales por el Impuesto sobre Sociedades para el año 2010 ascienden a 149.347 miles de euros, lo cual representa un 34,3% del presupuesto de ingresos teóricos por este Impuesto y supone un descenso del 22,9% sobre el presupuesto de gastos fiscales para 2009.

6.1.- Tipos impositivos especiales

Se considera como gasto fiscal la diferencia entre la cuota íntegra calculada al tipo general y la cuota al "tipo especial".

Jarraian, talde nagusiak hartu eta horien gastu fiskala zein izan daitekeen azalduko dugu.

- **Kooperatibak**

Kooperatiba guztiak hartuta, tasa bereziek 2010. urterako ekar dezaketen gastu fiskala 6.398 mila eurokoa da.

- **Inbertsio higikorreko sozietateak**

Sozietate hauek %1 ordaintzen dute Sozietateen gaineko Zergan. Tasa orokorrera iritsi arteko diferentziak ematen du gastu fiskala.

Kontzeptu honengatik 177 mila euroko gastu fiskala aurreikusi da guztira.

- **Enpresa txikiak**

%24ko tasa aplika dezakete. Kontzeptu honengatik 16.582 mila euroko gastu fiskala aurreikusi da guztira.

- **Bestelako tasak**

Honako sozietateak biltzen ditu: aseguru mutuak, elkargo profesionalak, 5/1995 Foru Araura biltzen ez diren fundazio eta elkarteak,.. (%21eko tasa), 5/1995 Foru Araura bildutako fundazio eta elkarteak (%10eko tasa), eta ondare sozietateak (%18ko tasa).

382 mila euroko gastu fiskala aurreikusi da guztira kontzeptu honengatik.

6.2.- <u>Kuotako hobariak</u>

Neurri honek ondoko hauetan du batik bat eragina: bereziki babestutako kooperatiben taldean, kuota osoaren %50eko hobaria egiten zaielako, eta zerbitzu publiko lokal jakin batzuk eskaintzeagatik lortzen dituzten errentetan.

Kontzeptu honengatik 9.806 mila euroko gastu fiskala aurreikusi da 2010. urterako.

A continuación destacamos los grupos más significativos a los que procedemos a estimar su gasto fiscal.

- **Cooperativas**

El gasto fiscal estimado para el año 2010 en el total de las cooperativas por tipos especiales es de 6.398 miles de euros.

- **Sociedades de Inversión Mobiliaria**

Este tipo de sociedades tributan en el Impuesto sobre Sociedades al 1%. La diferencia hasta el tipo general es lo que da lugar al gasto fiscal.

El gasto fiscal total estimado por este concepto es de 177 mil euros.

- **Pequeñas empresas**

Pueden aplicarse un tipo del 24%. El gasto fiscal total estimado por este concepto es de 16.582 miles euros.

- **Resto de tipos**

Recoge a las sociedades que pueden tributar al 21% (mutuas de seguros, colegios profesionales, fundaciones y asociaciones que no acogen a la Norma Foral 5/1995,..) y al 10% (fundaciones y asociaciones que se acogen a la Norma Foral 5/1995); así como el tipo del 18% aplicable por las sociedades patrimoniales.

El gasto fiscal total estimado por este concepto es de 382 miles euros.

6.2.- <u>Bonificaciones en cuota</u>

Esta medida afecta sobre todo al grupo de cooperativas especialmente protegidas, las cuales se ven beneficiadas por una bonificación del 50% de la cuota íntegra, y a las rentas obtenidas por la prestación de una serie de servicios públicos locales.

El gasto fiscal para el ejercicio 2010 por este concepto se estima en 9.806 miles de euros.

6.3.- Kuotako kenkariak

Apartatu honetan sartzen dira hainbat inbertsio direla-eta kuotan egiten diren kenkariak.

Kuotako kenkariengatik 95.189 mila euroko gastu fiskala espero da 2010. urtean.

6.4.- Amortizazio askatasuna

Kasu jakin batzuetan, oinarri ezargarria kalkulatzeari begira, konputatu beharreko amortizazioa ondare elementuen benetako balio-galera baino handiagoa izatea onartzen da. Soberakin hori eta zerga-amortizazio askatasun hori kontabilitatez kanpoko doikuntza negatibo bat eginez konputatzen da kontabilitate emaitzan.

Kontzeptu honengatik 2.824 mila euroko gastu fiskala kalkulatu da.

6.5.- Aparteko mozkinak salbuestea.

Enpresek aukera dute ibilgetu material eta inmaterialaren ondare elementuak kostu bidez eskualdatzeagatik lortutako errentak oinarri ezargarrian ez sartzeko, eta baloreak eskualdatzeagatik lortutako errenten %60 ere hortik kanpo uzteko, baldin eta zenbateko horiek baldintza jakin batzuk betez berrinbertitzen badira.

17.990 mila euroko gastua fiskala kalkulatu da.

Jarraian, 2010. urterako gastu fiskalen aurrekontua laburbildu eta 2009. urtekoarekin konparatu dugu kontzeptu nagusien arabera.

6.3.- Deducciones en cuota

En este apartado se incluyen las deducciones de cuota por inversiones realizadas.

El gasto fiscal para el año 2010, proveniente de las deducciones en cuota asciende a 95.189 miles de euros.

6.4.- Libertad de amortización

En determinados supuestos se permite computar a efectos de determinar la base imponible, una amortización superior a la depreciación efectiva de los elementos patrimoniales. Este exceso y libertad de amortización fiscal se computa mediante un ajuste extracontable negativo al resultado contable.

El gasto fiscal estimado por este concepto asciende a 2.824 miles de euros.

6.5.- Exención de Beneficios Extraordinarios.

Las empresas podrán no integrar en su base imponible las rentas obtenidas en la transmisión onerosa de elementos patrimoniales del inmovilizado material e inmaterial, así como el 60% de las obtenidas en la transmisión de valores, si estos importes son reinvertidos cumpliendo unos requisitos.

Se estima un gasto fiscal de 17.990 miles de euros.

A continuación se ofrece un resumen del Presupuesto de Gastos Fiscales para 2010 y su comparación con el de 2009 por los principales conceptos.

SOZIETATEEN GAINEKO ZERGA
2010ERAKO GASTU FISKALEN AURREKONTUA ETA AURREKO EKITALDIAREKIKO KONPARAKETA
IMPUESTO SOBRE SOCIEDADES
PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES PARA 2010 Y COMPARACION CON EL EJERCICIO ANTERIOR

KONTZEPTUAK CONCEPTOS	AURREKONTUA 2009 PRESUPUESTO	AURREKONTUA 2010 PRESUPUESTO	ALDAKETA VARIACIÓN 2010/2009 (%)
TASA BEREZIAK / TIPOS ESPECIALES			
Kooperatibak / Cooperativas	9.427	6.398	-32,1
Inbertsio higigarriko sozietateak /Sociedades inversión mob.	631	177	-72,0
Enpresa txikiak / Pequeñas empresas	21.162	16.582	-21,6
Bestelakoak / Resto de tipos	305	382	25,4
HOBARIAK / BONIFICACIONES	15.085	9.806	-35,0
KUOTAKO KENKARIAK / DEDUCCIONES EN CUOTA	122.095	95.189	-22,0
AMORTIZAZIO ASKATASUNA / LIBERTAD AMORTIZACION	3.265	2.824	-13.5
APARTEKO MOZ. SALB. / EXENCION BFOS EXTRAORD.	21.674	17.990	-17,0
GUZTIRA / TOTAL	**193.644**	**149.347**	**-22,9**

(Mila eurokotan / En miles de euros)

7.- PERTSONA FISIKOEN ONDAREAREN GAINEKO ZERGA.

Zerga honi lotuta dauden gastu fiskalak kalkulatzerakoan, kontuan eduki behar da badirela zenbait kontzeptu kuantifikatzen zailak direnak. Izan ere, daturik ez dugunez, nekez ebaluatu daitezke Ondare Historikoaren Ondasunei dagozkien salbuespenak, arte-gai eta zaharkinenak, jabetza industrial eta intelektualetik eratorritako eskubideenak, ez-egoiliarren eskutan dauden Zor Publikoko tituluenak, eta abar.

Dauzkagun datuekin ondoko gastu fiskalak baloratu ahal izan dira:

1) Minimo salbuetsia: gastu fiskala kalkulatzeko bi emaitza hauek hartzen dira: batetik, hasierako

7.- IMPUESTO SOBRE EL PATRIMONIO DE LAS PERSONAS FISICAS.

A la hora de determinar los gastos fiscales asociados a este impuesto, es necesario tener en cuenta que existen una serie de conceptos de difícil cuantificación; la ausencia de datos impide evaluar las exenciones correspondientes a Bienes integrantes del Patrimonio Histórico, objetos de arte y antigüedades, derechos derivados de la propiedad industrial e intelectual, títulos de Deuda Pública en manos de no residentes, etc...

Con los datos existentes se han podido valorar los siguientes gastos fiscales:

1) Mínimo exento: el gasto fiscal es la diferencia entre la cuota original y la cuota que resulta de

kuota eta, bestetik, minimo salbuetsirik ez dagoenean zergaren likidaziotik ateratzen dena. 11.308 mila euroko gastu fiskala kalkulatu da 2010erako.

2) Doiketa PFEZaren kuotarekin: aitortzeko obligazio pertsonala duten subjektu pasiboen kasuan, Ondarearen gaineko Zergaren kuota osoak ezin du, PFEZaren kuota osoarekin batera, azken zerga honen oinarri ezargarri orokorraren eta aurrezpenaren oinarri ezargarriaren %60 gainditu. Kontzeptu honengatik 32.963 mila euroko gastu fiskala kalkulatu da.

3) Ohiko etxebizitzaren salbuespena (200.000 euroraino gehienez). 3.902 mila euroko gastu fiskala aurreikusi da.

4) 61.302 eurorainoko salbuespena hiri ondasun higiezinengatik. 2.446 mila euroko gastu fiskala kalkulatu da.

Aurrekoa kontuan izanik, 50.620 mila euroko gastu fiskala kalkulatu da Pertsona Fisikoen Ondarearen gaineko Zergan.

liquidar el impuesto en el supuesto de inexistencia del mínimo exento. Se estima un gasto fiscal para el año 2010 de 11.308 miles de euros.

2) Ajuste con la cuota del IRPF: la cuota íntegra del Impuesto sobre el Patrimonio conjuntamente con la correspondiente al IRPF, no podrá exceder, para los sujetos pasivos sometidos al impuesto por obligación personal, del 60% de la base imponible general y del ahorro de este último. El gasto fiscal estimado por este concepto se eleva a 32.963 miles de euros.

3) Exención de la vivienda habitual (hasta un límite de 200.000 euros). El gasto fiscal estimado asciende a 3.902 miles de euros.

4) Exención por bienes inmuebles urbanos hasta un importe de 61.302 euros. El gasto fiscal estimado asciende a 2.446 miles de euros.

Teniendo en cuenta todo lo anterior, se estima para el Impuesto sobre el Patrimonio de las Personas Físicas un gasto fiscal de 50.620 miles de euros.

8.- <u>ONDARE ESKUALDAKETEN ETA EGINTZA JURIDIKO DOKUMENTATUEN GAINEKO ZERGA</u>.

Kostu bidez egindako ondare eskualdaketei, sozietateen eragiketei eta egintza juridiko dokumentatuei aplikagarri zaizkien salbuespenak eta kuotako hobariak hartzen dira zerga honetan gastu fiskaltzat. Era berean, etxebizitzen salmentetan %6ko tasa orokorra aplikatu beharrean %3ko tasa murriztua aplikatzea erosleak 35 urte baino gutxiago dituenean, eraikitako azalera 120 metro karratutik beherakoa denean eta bere benetako balioa 300.000 eurokoa baino handiagoa ez denean gastu fiskaltzat hartzen da baita ere.

Zergaren aitorpen-likidazioetan jasotako informazioan oinarrituta kalkulatzen da gastu fiskala, eragiketa salbuetsiengatik ere baitaude aitortzera behartuta.

Zerga honi lotutako gastu fiskala kalkulatzeko garaian topatzen dugun arazo nagusia datuak aurrekontuen ekitaldira eramatean datza, eta

8.- <u>IMPUESTO SOBRE TRANSMISIONES PATRIMONIALES Y ACTOS JURIDICOS DOCUMENTADOS</u>.

En este impuesto se consideran como gastos fiscales las exenciones y bonificaciones en la cuota aplicables a las Transmisiones Patrimoniales onerosas, a las Operaciones Societarias y a los Actos Jurídicos Documentados, así como la aplicación del tipo reducido del 3% frente al general del 6% en la transmisión de viviendas cuando el adquirente sea menor de 35 años, la superficie construida de la vivienda sea inferior a 120 metros cuadrados y su valor real no sea superior a 300.000 euros.

El cálculo de gasto fiscal se basa en la información disponible en las propias declaraciones y liquidaciones del impuesto, ya que incluso están obligados a presentar declaración por las operaciones exentas.

La principal dificultad a la hora de estimar el gasto fiscal asociado a este impuesto es la proyección de los datos al ejercicio que se desea presupuestar,

arrazoia da egitate ezargarriak aleatoriotasun handiz gertatzen direla. Horretarako, azken 3 ekitaldi itxietako datuak hartu dira oinarritzat, bai eta aurten grabatutako aitorpenak ere, memoria hau egin den egunera arte.

Aurrekoa aintzat hartuta, 2010erako espero den gastu fiskala 24.211 mila eurokoa da, honela banatua:

- Ondare eskualdaketak: 8.694 mila euro.

- Sozietate eragiketak: 4.123 mila euro.
- Egintza juridiko dokumentatuak: 11.395 mila euro.

9.- BALIO ERANTSIAREN GAINEKO ZERGA.

Salbuespenak eta tasa orokorretik behera tributatzen duten eragiketak hartzen dira gastu fiskaltzat. %16ko alikuota estandarra da tasa orokorra (%18a 2010eko uztailaren 1etik aurrera).

Gastu fiskalen zenbatekoa kenketa honen emaitza izango da: aurreikusitako zergabilketa ken eragiketa guztiak %16ko (edo %18ko) tasa orokorrarekin zergapetuta lortuko liratekeen sarrerak.

BEZaren aitorpenetatik datozen datuek ez dute aukerarik ematen kalkuluak simulazio prozeduren bidez egiteko, eta beste bide batzuetara jo behar izaten da.

1) BEZaren oinarri teoriko bat definitzen da, eta hori egiten da "eroslearentzat kengarria ez den" BEZa sortzen duten eragiketak batuz (hau da, zergabilketa dakartenak).

2) Oinarri teoriko hori ekitaldian BEZagatik espero den bilketa (kudeaketa propiokoa eta aduanen eta barruko eragiketen doikuntzen bidezkoa) batez besteko tasa ponderatuarekin zatituz lortzen da (ekitaldi honetarako, Estatuaren 2010eko aurrekontu orokorren proiektuak zerga onurei buruzko memorian jasotzen duen %10,29 aplikatu da).

3) Aurreko puntuan kalkulatutako oinarri teorikoari %16ko (edo %18) karga tasa

debido a la aleatoriedad con que se producen los hechos imponibles. Para ello se ha tomado como base los datos de los 3 últimos ejercicios cerrados, así como las declaraciones grabadas de este año, hasta la fecha de elaboración de esta memoria.

Teniendo en cuenta lo anterior se estima un gasto fiscal para el 2010 de 24.211 miles de euros, con el siguiente desglose:

- Transmisiones patrimoniales: 8.694 miles de euros.
- Operaciones societarias: 4.123 miles de euros.
- Actos jurídicos documentados: 11.395 miles de euros.

9.- IMPUESTO SOBRE EL VALOR AÑADIDO.

Se consideran como gasto fiscal, las exenciones y las operaciones sometidas a un tipo de gravamen inferior al general, entendiéndose esta última como la alícuota estándar del 16% (18% a partir del 1 de julio de 2010).

El importe de los gastos fiscales se obtiene por diferencia entre la recaudación prevista y los ingresos que se conseguirían en el caso de que todas las operaciones fueran gravadas al tipo general del 16% (o 18%).

Los datos procedentes de las declaraciones tributarias del IVA no permiten realizar los cálculos mediante procedimientos de simulación, por lo que se debe acudir a otros métodos:

1º) Se define una base teórica del IVA, como agregación de las operaciones que generan IVA "no deducible para el adquirente", en definitiva, las que generan recaudación.

2º) Esa base teórica se obtiene dividiendo la recaudación esperada del ejercicio por IVA (en gestión propia y por ajuste de aduanas y operaciones interiores) por el tipo medio ponderado (para este ejercicio se utiliza el 10,29% de la Memoria de Beneficios Fiscales del Proyecto de Presupuestos Generales del Estado 2010).

3º) Se define una recaudación teórica, aplicando el tipo de gravamen general (16% o 18%) a la

orokorra aplikatuz bilketa teoriko bat definitzen da.

4) Gastu fiskala eragiketa honen emaitza izango da: bilketa teorikoa ken aurreikusitako bilketa.

5) Kalkulatutako gastu fiskala salbuespenen, tasa murriztuaren eta tasa murriztuenaren artean banatzean kontuan hartzen dira bai Estatuaren Zerga Onurei buruzko memorian kontzeptu horietarako egindako banaketa eta bai BEZaren oinarri ezargarriak ezagutzen den azken ekitaldiko aitorpen bateratuaren karga tasen arabera duen egitura. Kasu honetan azken ekitaldia 2008koa da.

BEZa dela-eta 823.429 mila euroko gastu fiskala kalkulatu da 2010. urterako. Horietatik 320.314 mila euro salbuespenei dagozkie, 380.606 mila euro tasa murriztutik etorriko lirateke eta gainerako 122.509 mila euroak tasa murriztuenetik.

10.- ASEGURU PRIMEN GAINEKO ZERGA

Salbuetsita geratzen diren eragiketak hartzen dira zerga honetan gastu fiskaltzat: kauzio aseguruak, osasun laguntza eta gaixotasun aseguruak eta nekazaritzako aseguru konbinatuak. Araudiak ekitaldi honetarako dakarren berrikuntza da hiri garraio publikoarekin eta merkantzien edo bidaiarien errepide bidezko garraioarekin lotutako aseguru eragiketen %75eko hobaria, zirkunstantzia jakin batzuk betetzen direnean, desagertu egin dela.

Eragiketa salbuetsien urteko primen bolumenari behar den karga tasa (%6) aplikatuz kalkulatzen da gastu fiskalaren zenbatekoa.

Gastu fiskala sortzen duten kontzeptuek eragiketa salbuetsiei erreferentzia egiten dietenez eta eragiketa horiek aitorpen fiskala aurkeztera behartuta ez daudenez, haien gastu fiskala kalkulatzeko zergaz kanpoko iturrietara jo behar da. Kasu honetan, estatuak zerga onurei buruzko memoriarako egindako kalkulua hartzen da oinarri gisa. Gipuzkoari dagokion zatia egozteko honela jokatzen da: lehenik, Euskal Autonomia

base teórica calculada en el punto anterior.

4º) El gasto fiscal se calcula como diferencia entre la recaudación teórica y la previsión de recaudación.

5º) El reparto del gasto fiscal estimado entre exenciones, tipo reducido y tipo superreducido se realiza teniendo en cuenta tanto el reparto realizado para dichos conceptos en la Memoria de Beneficios Fiscales del Estado como la estructura de la base imponible del IVA según tipos de gravamen de la declaración consolidada del último ejercicio disponible (en este caso 2008).

El gasto fiscal estimado para el año 2010 en el IVA asciende a 823.429 miles de euros, de los que 320.314 miles de euros corresponden a las exenciones, 380.606 miles de euros corresponderían al tipo reducido y los restantes 122.509 miles al tipo superreducido.

10.- IMPUESTO SOBRE PRIMAS DE SEGUROS

En este impuesto se consideran como gasto fiscal las operaciones que quedan exentas: seguros de caución, seguros de asistencia sanitaria y enfermedad y seguros agrarios combinados. Como novedad normativa para este ejercicio, desaparece la bonificación del 75% para las operaciones de seguro relacionadas con el transporte público urbano y por carretera de mercancias o viajeros, en los que concurran determinadas circunstancias.

El importe de gasto fiscal vendrá determinado, simplemente, por la aplicación del tipo de gravamen correspondiente (6%) al volumen de primas anuales de las operaciones exentas.

Dado que los conceptos que generan gasto fiscal hacen referencia a operaciones exentas y éstas no están obligadas a presentar la declaración fiscal, para su estimación debe acudirse a fuentes extrafiscales. En este caso, se toma como base el cálculo realizado por el Estado para su Memoria de Beneficios Fiscales. La imputación de la parte correspondiente a Gipuzkoa se realiza a través de: primero, el porcentaje de representación de las

Erkidegoko primek Estatuaren kopuru osoarekiko hartzen duten portzentajea aplikatzen da. Eta, bigarrenik, Lurralde Historikoaren mailara jaisten da 2010eko banaketa horizontalaren koefizienteak aplikatuz.

2010. urterako espero den gastu fiskala 6.331 mila eurokoa da. Honela banatzen da gastu fiskala kontzeptuen artean:

- Osasun laguntza: 5.072 mila euro.
- Gaixotasuna: 800 mila euro.
- Nekazaritzako konbin.: 376 mila euro.
- Kauzioa: 83 mila euro.

11.- ZERGA BEREZIAK

Zergapeturik ez dauden transakzioak edo tasa orokorretik behera tributatzen dutenak hartzen dira zerga honetan gastu fiskaltzat.

Bai Hidrokarburoen gaineko zergan eta bai Alkoholaren eta Edari Deribatuen gaineko zergan, gastu fiskalak kalkulatzeko erabilitako metodologia Estatuaren zerga onurei buruzko memorian 2010erako egindako estimazioetan oinarrituta dago. Hauek dira metodo hori erabiltzeko arrazoiak:

- Zergaren aitorpenetan ez da ageri kalkulurako behar den informazio egokia.

- Bi zerga horiek ezaugarri bereziak dituzte: administrazio eskudunak legezko kuotak exijitzeaz gainera, benetan lortutako bilketari doikuntzak egiten zaizkio zergapetutako produktuen amaierako kontsumoa fabrikaziokoa ez den beste lurralde batean gertatzeak dakarren distortsioa zuzentzeko.

11.1. Hidrokarburoen gaineko zerga

Besteak beste, honakoak dira gastu fiskalak: Indar Armatuei eta ordezkaritza diplomatikoei gasolinak eta gasolioak zergaz salbuetsita hornitzea, pribatua ez den aire nabigaziorako nahiz zentral elektrikoetan argindarra produzitzeko karburante salbuetsia hornitzea,

primas procedentes del País Vasco respecto al total del Estado. Y, segundo, se baja a nivel de Territorio Histórico mediante los coeficientes de distribución horizontal de 2010.

El gasto fiscal estimado para el año 2010 asciende a 6.331 miles de euros. La distribución entre los distintos conceptos se realiza de la siguiente manera:

- Asistencia sanitaria: 5.072 miles de euros.
- Enfermedad: 800 miles de euros.
- Agrarios combinados: 376 miles de euros.
- Caución: 83 mil euros.

11.- IMPUESTOS ESPECIALES

En este impuesto se consideran como gasto fiscal las transacciones no sometidas a tributación o las sometidas a un tipo inferior al general.

Tanto en el caso del Impuesto sobre Hidrocarburos como en el Impuesto sobre el Alcohol y Bebidas Derivadas, la metodología utilizada para el cálculo de los gastos fiscales se basa en las estimaciones realizadas en la Memoria de Beneficios Fiscales del Estado para 2010. Las razones para usar este método son:

- No se dispone en las declaraciones del impuesto de la información adecuada para su cálculo.

- Las características propias de estos dos impuestos: además de las cuotas legalmente exigibles por la Administración competente, se realizan unos ajustes a la recaudación real obtenida, para corregir la distorsión derivada del hecho de que el consumo final de los productos gravados se produzca en un territorio distinto al que se realiza la fabricación.

11.1. Impuesto sobre hidrocarburos

Son gasto fiscal entre otros: las gasolinas y gasóleos suministrados con exención a las Fuerzas Armadas, representaciones diplomáticas, al avituallamiento de carburante para navegación aérea distinta de la privada, para la producción de electricidad en centrales electricas y los

kutsagarritasun gutxiagoko produktuak garatzeko proiektuetan karburante gisa erabilitako hidrokarburoak zergaz salbuetsita hornitzea, nekazaritzan karburante gisa erabiltzen den gasolioari zerga tasa murriztua aplikatzea, eta salbuetsi gabeko biokarburanteei zero tasa berezia aplikatzea.

Kontzeptu horiengatik kalkulatu den gastu fiskala 78.418 mila eurokoa da.

11.2. <u>Alkoholaren eta edari deribatuen gaineko zerga</u>

Honakook dira gastu fiskalak: zentro medikuei egindako alkohol horniketak eta sendagaiak fabrikatu nahiz elikagaien aromatizatzaile eta betegarriak prestatzeko egiten diren bestelakoak salbuestea; bidaiarien erregimenean inportatu eta sartzen diren edari deribatuak salbuestea eta destilatzaile artisauek elaboratutako edariei tasa murriztuak aplikatzea.

2010. urterako 2.625 mila euroko gastu fiskala kalkulatu da.

11.3. <u>Zenbait garraiobideren gaineko zerga berezia</u>

Honako ibilgailuak salbuestea jotzen da, besteak beste, gastu fiskaltzat: taxi, autotaxi edo autoturismotzat hartzen direnak, alokairurako eta gidariaren irakaskuntza profesionalerako erabiltzen direnak, eta minusbaliatuen eta ordezkaritza diplomatikoen izenean matrikulatutakoak. Gastu fiskala da, baita ere, oinarri ezargarria murriztea familia ugariek bakarrik erabiltzeko ibilgailuak matrikulatzen direnean.

Salbuespenetatik datorren gastu fiskala oinarri ezargarrietatik abiatuta lortzen da, haiei behar den karga tasa aplikatuta.

Familia ugarien kasuan oinarri ezargarria murrizteak dakarren gastu fiskala kalkulatzeko, murrizpenaren zenbatekoari behar den zerga tasa aplikatzen zaio.

hidrocarburos utilizados como carburantes en proyectos para el desarrollo de productos menos contaminantes; la aplicación de un tipo impositivo reducido al gasóleo utilizado como carburante en la agricultura; la aplicación de un tipo especial cero para los biocarburantes no exentos.

El gasto fiscal estimado por estos conceptos se eleva a 78.418 miles de euros.

11.2. <u>Impuesto sobre el alcohol y bebidas derivadas</u>

Se consideran gasto fiscal: la exención por suministro de alcohol a centros de atención medica, para la fabricación de medicamentos y en la fabricación de aromatizantes o rellenos para productos alimenticios; la exención por importación e introducción de bebidas derivadas en régimen de viajeros; la aplicación de tipos reducidos a las bebidas elaboradas por destiladores artesanos.

Para 2010 se estima un gasto fiscal de 2.625 miles de euros.

11.3. <u>Impuesto sobre determinados medios de transporte</u>

Se consideran como gasto fiscal: la exención, entre otros, para automóviles considerados taxis, autotaxis o autoturismos, para vehículos destinados a actividades de alquiler y enseñanza profesional de conductores, para vehículos matriculados a nombre de minusvalidos y de representaciones diplomáticas; también es gasto fiscal la reducción de la base imponible en el caso de matriculación de determinados vehículos que se destinen al uso exclusivo de familias numerosas.

El gasto fiscal asociado a las exenciones se obtiene a partir de las bases imponibles, sobre las cuales se aplica el tipo de gravamen correspondiente.

La estimación del gasto fiscal derivado de la reducción de la base imponible para familias numerosas resulta de aplicar al importe de la reducción, el tipo impositivo correspondiente.

Gastu fiskala 2010. urtera proiektatzeko, kenkari horiek aurreko urteetan izan duten bilakaera hartzen da kontuan.

1.796 euroko gastu fiskala kalkulatu da. Honela banatzen da kontzeptuen artean:

- Salbuespenak: 1.696 mila euro.
- Familia ugarien murrizpena: 100 mila euro.

11.4. <u>Elektrizitatearen gaineko zerga</u>

Autokontsumoari lotutako eragiketak salbuestea jotzen da gastu fiskaltzat; zehazki esanda, Europako Batasunaren barruan energia elektrikoa sortu, inportatu edo erosteagatik eta elektrizitate hori ekoiztu, garraiatu eta banatzeko instalazioetan autokontsumorako erabiltzeagatik aplikatzen den salbuespena da gastu fiskala.

Erabili diren zergaz kanpoko datuak Euskal Autonomia Erkidego osoari buruzkoak direnez, Gipuzkoari egotzi beharrekoa zergabilketaren banaketaren arabera kalkulatzen da, ekitaldian indarrean dauden koefiziente horizontalak aplikatuz.

2010. urterako kalkulatu den gastu fiskala 1.630 mila eurokoa da.

Para proyectar el gasto fiscal al 2010, se considera la evolución de los mismos en años anteriores.

El gasto fiscal estimado se eleva a 1.796 de euros. El reparto entre los distintos conceptos se realiza de la siguiente manera:

- Exenciones: 1.696 miles de euros.
- Reducción familias numerosas: 100 mil euros.

11.4. <u>Impuesto sobre la electricidad</u>

Se consideran gasto fiscal las exenciones de las operaciones ligadas al autoconsumo; concretamente, la exención a la fabricación, importación o adquisición intracomunitaria de energía eléctrica que sea objeto de autoconsumo en las instalaciones de producción, transporte y distribución de electricidad.

Como los datos extrafiscales utilizados hacen referencia al total del País Vasco, la asignación a Gipuzkoa se realiza en función del reparto de la recaudación del Impuesto, según los coeficientes horizontales vigentes en el ejercicio.

Para 2010 se estima un gasto fiscal de 1.630 miles de euros.

ZERGA BEREZIAK
2010ERAKO GASTU FISKALEN AURREKONTUA ETA AURREKO EKITALDIAREKIKO KONPARAKETA
IMPUESTOS ESPECIALES
PRESUPUESTO DE GASTOS FISCALES PARA 2010 Y COMPARACION CON EL EJERCICIO ANTERIOR

KONTZEPTUAK CONCEPTOS	AURREKONTUA 2010 PRESUPUESTO	AURREKONTUA 2009 PRESUPUESTO	ALDAKETA VARIACIÓN 2010/2009 (%)
Hidrokarburoak / Hidrocarburos	59.364	78.418	32,1
Alkohola eta edari deribatuak / Alcohol y bebidas derivadas	2.717	2.625	-3,4
Zenbait garraiobide / Determinados medios transporte	2.614	1.796	-31,3
Elektrizitatea / Electricidad	2.412	1.630	-32,4
GUZTIRA / TOTAL	**67.107**	**84.469**	**25,9**

(Mila eurokotan / En miles de euros)

12. ZENBAIT HIDROKARBUROREN TXIKIZKAKO SALMENTEN GAINEKO ZERGA.

Ondoko salmentak salbuesteagatik sortzen da gastu fiskala:

- Aisialdiko nabigazio edo abiazio pribatuarekin zer ikusirik ez duten itsasontzi edo aireontziei karburantea hornitzeko salmentak, eta tren bidezko garraiorako karburantea hornitzea dakartenak.

- Olio erabilien salmentak, erregai bezala erabiltzeko direnean.

- Hainbat produkturen salmentak, erosleak erabilera hauetako bat ematen badie: hidrokarburoen gaineko zergaren itzulketarako eskubidea lehendik ematen dion erabileraren bat, argindarra produzitzea, labe garaietan erredukzio kimikorako injektatzea, eta abar.

Gastu fiskala kalkulatzeko oinarria zergaren aitorpenak berak dira, subjektu pasiboek salmenta salbuetsiei buruzko informazioa aurkezteko obligazioa dutelako.

Ekitaldi honetarako estimazioa aurreko ekitaldietako datuak eta memoria hau egin arte 2008. urteari buruz eskura daudenak hartu dira kontuan.

351 mila euroko gastu fiskala aurreikusi da.

12. IMPUESTO SOBRE VENTAS MINORISTAS DE DETERMINADOS HIDROCARBUROS.

Los conceptos que generan gasto fiscal vienen determinados por las exenciones sobre las siguientes ventas:

- Las que impliquen avituallamiento de carburante a embarcaciones o aeronaves distintas de las que realizan navegación o aviación privada de recreo, así como las que impliquen un suministro de carburante para su utilización en el transporte por ferrocarril.

- Las de aceites usados y destinados a ser utilizados como combustible.

- Las relativas a los productos cuyo adquirente destine a: un uso por el que previamente tenga reconocido el derecho a la devolución del Impuesto sobre Hidrocarburos, la producción de energía eléctrica, la inyección en altos hornos con fines de reducción química, etc.

La base para el cálculo del gasto fiscal reside en las propias declaraciones del impuesto, ya que los sujetos pasivos están obligados a presentar información sobre las ventas exentas.

La estimación para este ejercicio se realiza teniendo en cuenta, tanto los datos de ejercicios anteriores, como los disponibles desde 2008 hasta la fecha de elaboración de la memoria.

El gasto fiscal estimado asciende a 351 mil euros.